BIZITEGI ERAIKINA — MENDEURREN PLAZA 1

C MAILA





Egilea eta data: Luis Elizalde, 1914.

Deskribapena

Forma trapezoidaleko orube batean, Prim kalearen amaieran kokatua dago etxea, Zabalduraren atarian. Oin bakoitzean etxebizitza bakarra dago eta, berezitasun gisa, erdiko patio baten inguruan bi eskailera ditu, bata nagusia eta bestea zerbitzukoa. Garrantzitsua da ibaiaren aurrealdeko lerrokaduraren etxadi buruan dagoelako. Lorategidun fatxada bat eta bastardeko etxebizitzetako sarrerak ditu. Ibaiari begira dagoen fatxada hiritar honen ereduzko soluzioari bukaera ematen dio. Alde horretan kanporantz irteten diren begiratoki edo pabilioi txikiak bata bestearen ondoan jarrita daude. Lehen oinean, normalean, terraza bat dute. Orokorrean azpimarragarriena eraikinaren eraikuntza kalitatea da eta, alderdi partikular gisa, forjaketetako eta zeramiketako lanak nabarmentzen dira.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko erregimena.
- A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak: arotzeriak.
- B.- Elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta kantoiko errotonda.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.